

JARDUERA ETA ERABILERA

Getxo Kirolakeko abonatu kopuruak azken hiru urteetan (2014-2016) 25.000 abonatuaren gainetik jarraitu du. Instalazioen erabilerari buruzko datuak asko aldatzen dira urte-sasioaren, kirol-denboraldien eta asteburuaren arabera. Zaila da pista oso espezializatuen erabilerari buruzko datuak alderatzea, hala nola errugbierena eta txandakatze azkarra duten instalazioena, padel-pistena esaterako. Aste arrunt batean gutxi gorabehera zenbat erreserba egiten diren ikusteko (kasu honetan, datuak martxoaren hirugarren astekoak dira), eremu bakoitzeko

astero egiten den erreserba kopuruaren diagraman adierazten dira. Kopuru horretan erreserba mota guztiak barne hartzen dira: ikastaroak, taldeen erreserbak, abonatuaren eta erabiltzaileen erreserbak eta abar.



Arrazoizkoa da pentsatzea hil hotzenetan kanpoko pistetarako eskaera jaitea eta udan zehar, esaterako, zenbait entrenamendu-zelairen erabilera jaitea. Oro har, zalantzarik gabe esan daiteke zenbait instalaziok beste batzuek baino erabilera-eskaera handiagoa dutela.


→ Asteko erreserba kopuru osoa, instalazioaren eta erabiltzaile motaren arabera.

- Ikastaroak
- Taldea
- Abonatuak
- Erabiltzaileak

→ Erreserba kopuru osoa instalazioaren eta erabiltzaile motaren arabera 2016. urtean

- Abonatuak
- Erabiltzaileak





Instalazio bakoitzean erabilgarri dauden eremuak. Parentesi artean 2016. urtean instalazio bakoitzeko urteko erreserba-kopurua adierazten da.

JARDUERAK DENBORAN IZAN DUEN BILAKAERA

Fadurako kiroldegira sartzeko datuak aztertzen badugu erreferentziako urte batean (2016, 570.307 sarbide guztira), astelehenetik ostegunera sarbide kopurua nahiko konstantea dela ikus dezakegu (2.000 sarbide inguru egunero). Ostiralean % 25 jaisten da (1.500 sarbide inguru) eta asteburuetan nabarmen txikiagoa da (800 sarbide inguru).

Garrantzitsua da kontuan hartzea asteburuetan erabilera-ereduak eta asteko erabilerenak oso bestelakoak direla. Asteburuan ikastaroak egiten dituzten pertsonen eta ohiko kirolarien kopuruak behera egiten du, eta antolatutako kirol-ekitaldiak, partidak eta abar handitzen dira.

Ordutegiei dagokienez, tornuen bidezko sarbideetan bi unetan dago jende kopururik handiena: bat, goizez (9:00-10:00), eta bestea, esanguratsua dena, arratsaldez (17:00ak aldera emakumeen kasuan, eta 19:00ak aldera gizonen kasuan).

Lan-ordutegian gertatzen den erabiltzaile kopuruaren jaitsierari aurre egiteko beste programa batzuk sar litezke eta kiroldegia girotuko lukete ordutegi horretan.


Urtean zehar instalazioetara sartzen den pertsona kopurua nabarmen aldatzen da. Abenduan eta irailean dago pertsona kopururik txikiena (39.000 inguru), eta 2016ko otsailean, berriz, 54.194 sarbide izan ziren (% 30 gehiago).




Garagardotegiaren erreserba kopuruaren datua desberdina da: grafikoan ikusten denez, larunbatetan eta igandeetan beteta dago; gainerako astean, berriz, okupazioaren ehunekoak nabarmen txikiagoa da.

Asteburuetan (2015ean nahiz 2016an) denboraren % 85ean gutxienez erreserbatu da eremua, eta % 89 arte heldu da. Asteburuan zehar okupazioaren ehunekoak baxu jarraitu du, % 45ean (2016an), eta astearte eta asteazkenetan denboraren % 95 arte erreserbatu da garagardotegia. Benetako erabileraren datuak desberdinak izan litezke, erreserbak beti ez direlako gauzatzen, eta ez dago sarbideen erregistrorik.

Garagardotegiaren erreserba guztien kopurua 2015. eta 2016. urteetan

■ 2015
■ 2016






*Datuak eraikin nagusi-rako eta frontoietarako sarbideei buruzkoak dira, torneetatik igaroz. 2016. urteko datuak erabili dira.

IKASTAROGILEEN DATUAK


Fadurako kiroldegian hainbat jarduera eta ikastaro egiten dira, eta 2016. urtean, 3.313 pertsonak parte hartu zuten, eskainitako plazen % 86,64 okupatuz. Ikastarogile kopuruaren adinaren arabera, banaketa bat gutxi gorabehera kiroldegiko erabiltzaileekin egiten den banaketarekin. Gehienak oso gazteak dira eta 40 eta 60 urte artekoak. Generoaren arabera, banaketa guztiz desberdina da. 21 eta 30 urte artekoen artean, emakume kopurua beti da handiagoa: ikastarogile kopuru osoaren % 58.


Ikastarogile kopurua adinaren arabera, 2017ko otsaila.



Ikastaroak aste osoan zehar egiten dira, larunbata barne. Parte-hartzaileen % 10 6 alditan joaten da kiroldegira astean zehar. Ikastaro gehienak, % 69, bi egunetan egiten dira (astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan). Gainerako ikastaroak ostiraletan bakarrik edo astean hiru egunetan antolatzen dira. Erabiltzaile gehien laneko ordutegiaren aurretik, goizean, eta arratsaldean, 17:30ean egoten dira..

Ikastarogile kopurua ordutegi-tartearen arabera. 2017ko otsaila





←
Ikastarogileen datuak
jarduerako 2017ko
otsailean.
("Bizi" jarduerak eus-
karaz egiten dira.)

- Gazteentzako ikastaroak
- Helduentzako ikastaroak
- Nagusientzako ikastaroak
- 100 erabiltzaile

UDAKO IKASTAROAK ETA KIROL CAMPUSA

Iturria: Getxo Kirolak txostena, 2016.

Fadurak denboraldiko ikastaroak nahiz udako ikastaroak eta kirol campusak eskaintzen ditu. Azken horiek batez ere gazteentzat eta umeentzat dira.

2016ko udan Getxo Kirolak 49 ikastaro antolatatu zituen Faduran. Guztira 1.206 plaza ziren, eta okupazioaren ehuneko oso handia izan zen: % 90,71).

Ikastaro ugariak umeentzat izan ziren, batez ere “haurrentzako kirol jarduerak” eta igeriketa-koak. Guztira, % 70 izan ziren.

Kirol campusak urtean zehar ere antolatzen dira: Gabonetan, Inauterietan, Aste Santuan eta udan. Campus horiek kirol klubei nagusiki interesatzen zaizkie. Campusetara kirolari gehien eraman dituen kluba Getxo Azkarrenak Irristaketa (patinaje kluba) izan da, 243 pertonekin, hala ere, klub askok 200 kide baino gehiago ere eraman dituzte: Getxo Saskibaloia, 230; Getxo Igeriketa eta Waterpolo, 154, eta abar.


KIROL FEDERATUA

Getxoko Kirol Klubek ia 280 talde dituzte modalitate guztietan. 2016. urtean zehar 4.600 lehiaketa inguru antolatu ziren udal instalazioetan (horien artean Fadura), eta guztira, 72.450 pertsonak parte hartu zuten.


Getxo Kirolak 2016ko txostenean adierazten den moduan: “jarduera ezohikoei erregularrak batuz (hala nola lehiaketak), iaz, Getxon, 180.000 pertsonak parte hartu zuten elkarteekin eta bertako klubekin lotutako jardueretan”.

Faduran 2016an egin ziren 3.412 txapelketetatik, 1.456 futbolarekin lotuta egon ziren. Gainerako lehiaketak hauek izan ziren: saskibaloia (378), errugbia eta tenisa (384), volley (288), waterpolo (144), areto-futbola (104) eta pilota (104), eskubaloia (75), hockey (34), ultimate (15), igeriketa (12), atletismo (8), gimnastika erritmikoa (6), txirrindularitza (4), arku-tiroa (3), herri kirolak (2) eta boxeoa (1).


Entrenamenduek kiroldegia hartu duten ordu kopuruari dagokionez, interesgarria da nabarmentzea Getxo Kirol Klubaren asteko 130 orduak, eta gero, Getxo Atletismo Klubaren eta Berango Atletismo Taldearen 95 eta 91 orduak hurrenez hurren. Horiek dira alde handiarekin instalazioa gehien erabiltzen duten klubak.



←
Denboraldiko ikastaroen araberako parte-hartzaile kopurua Faturan



←
Udako ikastaroen araberako parte-hartzaile kopurua Faturan





←
Kluben asteko entrenamendu-orduak Faturan

ASTEBURUAK

Asteburuetan zehar erabilera desberdina da Faduran gainerako astearen aldean. Zenbait eremu normalean asteburu osoan erabiltzen dira, esaterako futbol-zelai gehienak. Beste batzuk,

berriz, noizean behin erabiltzen dira, esaterako atletismo pista.





← Instalazioen okupazioa asteburuetan. Bi asteburuko erabileraren datuak aurkeztu dira adibide gisa: bata, neguan (2016ko azaroaren 5/6) eta bestea, udaberrian (2016ko apirilaren 16/17).

- Larunbata Negua
- Igandea Negua
- Larunbata Udaberria
- Igandea Udaberria

*Tennis eta padel pistak instalazio bakar bat gisa hartu dira, erabileraren pistaren arabera bereizi gabe.

JARDUERAK ERAIKIN NAGUSIAN

Eraikin nagusian egindako jarduerak hiru kategorietan bana daitezke: kirol-jarduerak, osasunarekin eta ongizatearekin zerikusia duten jarduerak eta ikasketa edo irakurketa jarduerak.

Kirol-jarduerak:

- Muskulazio gimnasioa: Muskulazioa eta fitness.
- Erabilera anitzeko aretoak 1 eta 2 (ispiluekin): dantza, aerobic, zumba, arte martzialak, pilates, stretching, gimnastika, dantza modernoa
- Erabilera anitzeko aretoa 3 (ispilurik gabe): pilates eta stretching.
- Igerilekuak: Uretako jarduerak, igeriketa, igeriketa egokitua, aquagym, waterpolo, urpekaritza-bataioak.
- Kiroldegia: saskibaloia, boleibola, nagusien gimnastika, gimnastika erritmikoa, psikomotrizitatea, multikirola.

Osasun eta ongizate zerbitzuak:

solariuma, sauna, masajea, hidromasajea, estetika.

FRONTOIEN ERAIKINEKO JARDUERAK

- Frontoia: Frontoi luzea, frontoi laburra, trinketa.
 - Padel: Ikastaroak eta jarduera librea.
 - Gimnasioa: Getxo Rugby Taldearen apartuak, herri-kirolak, boxeoa.
 - Arte martzialak: Judo, karate, taekwondo.
 - Yoga aretoa.
 - Spinning.
 - Erabilera libreko gimnasioa abonatuentzat.
 - Klubei lagatzen zaizkien gela txikiak.
- Garagardotegia zenbait modutara erabiltzen da.

GARAGARDOTEGIKO JARDUERAK

Zenbait klubek egunero erabiltzen dute; beste batzuek, noizean behin erabiltzen dute, zenbait jardueretarako.

Eguneroko erabilera (biltegiratzeko lekuarekin):

Divertek, Getxo Ipar Arrantza, Getxo Dive

Ohiko erabilera:

Adrebol, Asociacion Getxo Futbola, Club Deportivo Getxo, Getxo Rugby Taldea

Noizean behin:

Arrautzaldeon Futbol Taldea, Bizkerre Futbol Taldea, Club Deportivo Galea, Iturgitxi Futbol Club, Sociedad Deportiva Neguri, Andra Mari Ikastetxea, Getxo Arkua, Club Balonmano Romo, Baloncesto Getxo Saskibaloia, Club Ajedrez Getxo, Getxo Euskal Pilota Taldea, Getxoko Aixerrota Boleibol Kirol Taldea, Getxo Show, Izarrak Boxing Club, Ikastola San Nikolas, Getxo Triathloi Taldea, Getxo Herri Kirol Taldea, Club de Tenis Fadura, Club Jockey Stick Getxo, Club Natacion Fadura - Getxo Igeriketa Bolua Elkartea, Sociedad Itxas Argia Mendi Taldea, Itxartu Mendigoizale Taldea, Sikap (filipinarren elkarte), Asociación cultural Boliviana.

Interesa duten beste klub batzuk:

Vecino Bizkerre, Getxo Udala, AMPA Zubileta, Getxoko Ipar Arrantza, Stereosonic, Institutua Bigeko, Kantxa Kirol Mosa, GIW, AMPA Zentzuz, Restaurante Escuela Fadura, Club Deportivo De Tenis Playas De Getxo, Stereosonic, Judo Club Getxo, Club Hockey, Club Rugby, Club Patinaje Artístico.



BEREZKO ERABILERAK, USTEKABEKOAK EDO EZTABAIDAGARRIAK

Berezkotasuna eta gatazka

Fadura parke bat bihurtzea jendea erakartzeko aukera da. Horrela, espazio publikoaren berezko erabilera eta erabilera arduratsua egin daitezke. Berezkotasuna eta gizarte-elkarrekin-tza eremu publiko on baten balio nagusia da, eta zaindu behar da.

Hala ere, barruti itxia denez, orain arte ez da erabilera gatazkatsurik edo legez kontrakorik eman. Gerta daiteke parkea erabiltzen hastean eta dibertsifikatzean gatazka berriak agertzea. Hala ere, ustekabea denez, ezin dira denak hemen identifikatu. Dagoeneko detektatu diren batzuk aipatu dira diagnostikoan eta eragile nagusien mapaketan.

Egon daitezkeen gatazkek ulertzea proposatzen da, hiri-garapenaren zati natural gisa, eta partaidetza-prozesuan zehar ekitea, errespetuzko eta erantzukizunpek inguru batean askatasunik handiena ematea bilatuz.

Gizarte-jarduera eta kultura-ñabardurak

Zenbait taldek eremu publikoarekin egiten duten erabilerak dagoeneko gatazka-elementuak daudela erakusten du. Hala nola biltzen den jende kopurua, beraiek edo musikak sortzen duten zarata, pertsonen beste modu batera hartzen dituzte.

Gaur egun, eremuen erabilerak, hala nola gizarte-topaketarako aparkalekua, kontrako iritziak eragin ditu Fadurako erabiltzaileen eta auzokoen artean.

Gizarte-topaketa eta eremu publikoaren erabilera ulertzeko modu horiei tolerantziaz eta kultura artekotasunez aurre egitea proiektuaren erronka handietako bat da.

Janaria eta garbiketa

Oso lotuta dago gizarte-topaketarekin, janaria eremu publikoan egoteak kontrako iritziak ere eragin ditzake.

Proiektu honek bilatzen dituen kirola, osasuna eta elikadura nahastearen ondorioz, komenigarria da gai hori permisibitatea kontuan hartuz aztertzea, partaidetza-prozesuan mugei errepertatuz eta garbiketan eta birziklatzean hezten bilatuz.

Jolasa eta kirol informala

Eremu publiko batean, parke batean bereziki, jolas eta kirol informaleko jarduerak egin daitezke, bereziki umeek eta gazteek egindakoak, beste jarduera batzuekin batera egin daitezkeenak. Aukera hori alde aurretik kontuan hartzea jarduera horiek baimentzeko aukera izan daiteke, arazorik ekarri gabe.

Horrez gain, Faduran herri-kirolak gehiago susta daitezke, gaur egun, oso jende gutxi erakartzen duen eremu batean egiten direlako.

Etxeko animaliak

Gai eztabaidatsuenetako bat etxeko animaliak eremu publikora sartzearena da. Eremu publiko askatasunaz erabiltzearekin, eragin ditzaketan arazo edo eragozpenekin zerikusia duten eta oso argiak diren iritziak ekartzen ditu.

Gaur egun debekatuta dago esparru osora sartzea, baina hiriari parke gisa zabalduko denez, ziur asko hiru zentzutan sortuko dira eskaerak: tarteko egoera bat baimentzea, debekatzea edo arautzen saiatzea.

Bestelakoak

Zerrenda zorrotz bat egin nahi izan gabe, beste erabilera batzuk ager litezke, hala nola hiriko artea, hiriko ortuak lantzea, zenbait tailer edo topaketa eta abar. Horiek guztiak kontuan har litezke, eta hala badagokio, modu aktibo eta positiboan sar litezke.



ILDO ESTRATEGIKOAK - JARDUERA ETA ERABILERA

Fadurako kiroldegia kirolarekin bakarrik zerikusia ez duten beste erabilera batzuetarako irekitzea, hala nola kultura eta gizarte jardueretarako, naturarekin, hezkuntzarekin, jolasarekin, ikaskuntzarekin eta bestelakoekin lotutakoak.

Parkea goizean erabiltzen duten pertsona kopuruaren jaitsierari aurre egiteko, ikerketarekin, ekintzailtzarekin, hezkuntzarekin eta bestelakoekin lotutako beste erabilera batzuk sartzea.

Dauden instalazioak eremuen eskaerara egokitzea, instalazioen aniztasunari eutsiz, hau da, jadanik dauden erabilerarik edo kirolik kendu gabe.

Aire zabalen dauden instalazioetako batzuk Getxoko berariazko klima-baldintzetara egokitzea, urte osoan erabil ahal daitezen.

Parkean erabiltzen ez diren eremuak beste jarduera batzuk egiteko erabiltzea, oraingoz Fadurako instalazioetan lekurik edo eremurik ez dutelako.

Kiroldegiko eremu guztiak ordutegi osoan erabil daitezela sustatzea, gutxiago erabiltzen diren edo ordutegi jakin batzuetan erabiltzen ez diren instalazioetako batzuk malgutuz.

Generar áreas para actividades libres en los espacios abiertos del parque (camino para correr, áreas de descanso, juego y contacto con la naturaleza, etc.) que favorezcan la convivencia de personas de cualquier edad, origen, género y condición.